

Azaroaren 19ko 80/1991 FORU DEKRETUA, Ekonomi Ihardueren gaineko Zergaren kudeaketarekin lotutako zenbait alde arautzen dituen.

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik.
Eguneratutako Foru Dekretu osoa jasotzen da bertan.

Testuaren bukaeran, foru dekretuaren zenbat artikulua aldatu dituzten xedapenen
zerrenda ere ageri da.

1. sekzioa: Zergaren matrikula	2
1. artikulua. Edukina.	2
2. artikulua. Matrikula itxi eta osatzea.	3
2. sekzioa: Matrikularen osaketa. Altak, bajak eta aldaketak.	3
3. artikulua. Aitortzera behartuta daudenak eta aitorten motak.	3
4. artikulua. Alta aitortenak.	4
5. artikulua. Baja aitortenak.	4
6. artikulua. Aldaketa aitortenak.	5
7. artikulua. Aitortenak aurkezteko epe eta lekuak.	6
8. artikulua. Obligazioak ez betetzea.	6
9. artikulua. Ofiziozko alta, aldaketa eta bajak.	6
3. Sekzioa: Ihardueren kalifikazioa eta kuoten likidazioa.	6
10. artikulua. Prozedura eta organo eskumendunak.	6
4. Sekzioa: Salbuespenak eta Hobariak.	7
11. artikulua. Eskaera.	7
5. sekzioa. Zerga zorraren ordainketa.	8
12. artikulua. Zerga zorraren ordainketa.	8
6. Sekzioa: Errekurtso eta erreklamazioak.	8
13. artikulua. Zentsu eta likidazio egintzen aurkako errekurtsoak.	8
7. Sekzioa: Ikuskaritza.	9
XEDAPEN IRAGANKORRAK	9
Lehena.	9
Bigarren.	10
Hirugarrena.	10
Laugarrena.	10
Bosgarrena.	10
XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA.	10
AZKEN XEDAPEN BAKARRA.	11

Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak udal ogasunek dituzten zerga baliopideak ordenatu egin zituen eta indarrean sartzean, aurretik zeuden zergak erraztu.

Aipuatutako Foru Arauean aurrikusten diren bost zergetatik, Ekonomi Ihardueren gainekoa uztailaren 5eko 13/1989 Foru Arauaren bidez erregulatu zen. Foru Arau horrek, urriaren 24eko 56/1990 Foru Dekretuak, abenduaren 27ko 18/1990 Foru Arauaren bidez baliozkotuak, bere Xedapen Iragankorretatik Lehenaren idazketan dioenez, Gipuzkoako Lurralde Historikoan 1992ko urtarrilaren 1etik hasiko de Zerga eskatzen.

Zergaren Tarifak eta Instrukzioa onarturik, bere kudeaketarako arauak jartzea komeni da, uztailaren 5eko 13/1989 Foru Arauaren Azken Xedapenetako Lehenak Foru Aldundiari ematen dion baimenarekin bat.

13/1989 Foru Arauak Udalen eta Foru Aldundiaren artean egiten duen kompetentzia banaketa errespetatu nahi dute Zergaren kudeaketarako eman diren arauak, beti ere erakunde kudeatzaileen arteko eraginkortasun eta koordinazioari lehentasuna emango zaiolarik, kompetentzia bikoitz horrek zereginen bikoizketarik ekar ez dezan ahaleginduz eta eredia ere subjektu pasiboarentzako ulergarri izango den eran erraztuz.

Zerga indarrean jartzeak matrikula osatuko duten zentsuak egitea du lehen eginkizun, bertatik kudeatuko baita gero zerga. Horregatik, 1992ko urtarrilatik martxora bitartean, alta aitortpena aurkeztu eta ezargarri zaizkien salbuespenak eta gainerako onura fiskalak jakineraztera behartuta daude zergaren subjektu pasibo guztiak, Foru Dekretu honen xedapen iragankorretan jasotzen denez, eta Administrazioa, berriz, egiten dituen behin-behineko likidazioen berri bakarka ematera.

Horren indarrez, Ogasun eta Finantzetako Foru Diputatuaren Proposamenez eta Diputatuen kontseiluaren gaurko bilerako deliberazioa aurrez dela, hurrengoa

XEDATU DUT

1. sekzioa: Zergaren matrikula

1. artikulua. Edukina.

1. Ekonomi Ihardueren gaineko Zerga, bere matrikulan oinarriturik kudeatuko da. Aipatu matrikula urtero egingo du Gipuzkoako Foru Aldundiko zerbitzu eskumendunak.

2. Ekonomi Ihardueren gaineko Zergaren subjektu pasibo guztiak batzen dituzten zentsuek osatuko ditu Zergaren Matrikula, horretarako ordaintzen duten kuota motaren, -udalekoa, probintziakoa edo estatuko bereziaren- arabera banatu eta sekzio, talde, epigrafe eta azpiepigrafitan sailkatuko direlarik subjektu pasiboak; subjektu pasibo eta epigrafe bakoitzeko honakook izango ditu:

- a) Subjektu pasiboaren datu identifikatzaileak: Identifikazio Fiskalerako Zenbakia, pertsona fisikoentzat izen-deiturak, pertsona juridikoen kasuan izendapen sozial osoa eta Zergekiko Foru Arau Orokorreko 33. atikuluak jasotzen dituen Entitateen kasuan, berriz, izendapena.
- b) Ihardueraren helbidea eta subjektu pasiboaren helbide fiskala.
- c) Ihardueraren izendapena, eta horri dagokion sekzioa, saila, multzoa, taldea, epigrafea eta azpiepigrafea.
- d) Tributu elementuak, behar bezala kuantifikaturik.
- e) Zergaren tarifak ezartzetik ateratzen den kuota.
- f) Eskatu edo emaniko salbuespena edo beste edozein onura fiskal.
- g) Foru Errekargua, hala badagokio.
- h) Udal kuotak direnean eta subjektu pasiboak zuzenean iharduerak betetzeko erabiltzen ez dituen lokalak baditu, Zergaren Instrukzioari buruzko 14. I,F), h) erregelari aipatzen direnak hain zuen, udalerriri dagokion matrikulan agertuko dira lokalak, azalera, egoera eta ezarriko zaien kuota adieraziz.

2. artikulua. Matrikula itxi eta osatzea.¹

- 1. Ekitaldi bakoitzeko matrikula aurreko urteko abenduaren 31n itxiko da, eta urte horretan izandako alta, baja eta aldaketak jasoko ditu. Horretarako, kontuan hartuko dira urtarilaren 31ra arte aurkeztutako alta, baja eta aldaketak, urtarilaren 1a baino lehenagoko gertaerei dagozkienak.
- 2. Foru Aldundiak osatu behar du udal bakoitzari dagokion matrikula. Urtero prestatuko da, eta Ogasun eta Finantza Departamentuko zerbitzu eskudunak arduratuko dira horretaz. Ogasuneko zuzendari nagusiaren oniritzia jaso beharko du. Ordainagiriak kobratzeko epea hasi aurretik bidaliko zaie udalei.

2. sekzioa: Matrikularen osaketa. Altak, bajak eta aldaketak.

3. artikulua. Aitortzera behartuta daudenak eta aitorten motak.

- 1. Ekonorni Ihardueren gaineko zergaren subjektu pasiboek alta edo baja aitortzen aurkeztu beharko dute ihardueraren hasieran edo bukaeran. Era berean, kargadun iharduerak burutzean gerta daitezen eta zergan garrantzia duten aldaketa fisiko, ekonomiko nahiz juridikoen berri emanez aurkeztu beharko dute aitortzen.
- 2. Aitortpenak ihardueraren titularrek formalizatuko dituzte, zuzenean nahiz hartarako behar adina botere duen ordezkari bidez, Ogasun eta Finantzak Departamentuaren Foru Aginduz onar daitezen ereduetan, eta Foru Dekretu honetako 7. artikuluan zehazturiko epe eta lekuetan aurkeztuko dira.

¹ Artikulu hau ekainaren 23ko 21/2009 FORU DEKRETUaren 2. artikulua aldatu du. Aipatutako foru dekretuak otsailaren 20ko 6/1990 Foru Dekretua, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kudeaketaren zenbait alderdi garatzen dituen, eta azaroaren 19ko 80/1991 Foru Dekretua, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren kudeaketarekin lotutako zenbait alderdi arautzen dituen, aldatzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2009/07/02ko GAO).

3. Aitorpenak jasotzeko organo eskumendunak, aitortutako datuak egiaztatzeko behar diren agiriak nahiz aitorpenean aurkitutako oker eta akatsak zuzentzea eskatzeko ahalmena izango du.

4. artikulua. Alta aitorpenak.

1.² JEZaren subjektu pasiboak behartuta daude altako aitorpena aurkeztera ordaindu behar duten gutxieneko udal kuota edo kuota probintzial edo estatal berezi bakoitzeko, kontuan hartu gabe salbuespen eskubidea aitortzen zaien edo ez.

Aurreko paragrafoan aipatutako betebeharretik kanpo geratzen dira Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Testu Bateratuak, apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arauemaileak onartu zuenak, 5. artikulua 1 zenbakiko a), d) eta i) letretan aipatutako subjektu pasiboak.

2.³ Altako aitorpenetan jasota utzi behar dira jarduera sailkatu eta kuotak kalkulatzeko behar diren zerga arloko elementu guztiak. Gainera, espresuki adierazi beharko da, bidezkoa bada, haien talde edo epigrafeei dagozkien oharretara bilduta dagoela.

Era berean, aitorpenetan eskatu ahal izango da Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Testu Bateratuak, apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arauemaileak onartu zuenak, 5. artikulua 1 zenbakiaren b), e), f) eta h) letretan aipatutako salbuespenak eman daitezela edo, bidezkoa bada, foru arau batean horrela aurreikusita dagoenean, foru dekretu honek 11. artikuluan jasotakoaren arabera.

3. Udal kuotaz tributatu eta iharduerarako zuzenean erabiltzen ez diren lokalak baditu, Zergaren Instrukzioko 14. I,F),h) erregelak aipatzen dituenak, aipatutako lokal bakoitzeko aitorpen bat aurkeztu beharko da artikulua honetan aipatzen den aitorpenaz gain, nahiz eta kasu horretan geroragoko likidaziorako, tributu elementuetatik azalerarena bakarrik kontuan hartu.

5. artikulua. Baja aitorpenak.

1. Iharduera baten matrikulan izena emanik egon eta iharduera utzi duten Zergaren subjektu pasiboak, behartuta daude dagokion baja aitorpena aurkeztera.

2. Ezinbesteko arrazoia tarteko subjektu pasiboak ihardura utzi beharra izan eta baja aitorpena aurkezterik izan ez badu, legez haren ordezkari denak egin beharko du.

3. Iharduera bertan behera uztea titularraren heriotzagatik gertatzen bada, edozein kontzeptutan hura ordezkatzeko dutenei dagokie aitorpena egitea.

² 1 apartatu hau azaroaren 23ko 91/2004 FORU DEKRETUaren Artikulu Bakarrak aldatu du. Foru Dekretu honek jarduera ekonomikoen gaineko zergaren kudeaketarekin lotutako zenbait alderdi arautzen dituen azaroaren 19ko 80/1991 Foru Dekretua aldatzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean. (2004-12-02ko GAO.)

³ 2. apartatu hau azaroaren 23ko 91/2004 FORU DEKRETUaren Artikulu Bakarrak aldatu du. Foru Dekretu honek jarduera ekonomikoen gaineko zergaren kudeaketarekin lotutako zenbait alderdi arautzen dituen azaroaren 19ko 80/1991 Foru Dekretua aldatzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean. (2004-12-02ko GAO.)

6. artikulua. Aldaketa altorpenak.

1.⁴ Aldaketa aitorpena aurkeztu beharra sortzeko, jardueraren elementu fisiko, ekonomiko nahiz juridikoetan honakook hartuko dira, besteak beste, zergan eragina duten aldakuntzatzat:

- a) Tributu elementuetan 100eko 20 baino gehiagoko aldakuntzak, gora nahiz behera.
- b) Jardueraren titular den sozietatearen pertsonalitate juridikoaren eraldaketa.
- c) Matrikulaturik dagoeneko talde edo epigrafearen barruan beste ohar batera biltzeko erabakia, edo lehendik ez badago, oharren batera biltzekoa.
- d) Tarifek kuota mota bat baino gehiago esleiturik dutenean, dela udalekoa, probintziakoa edo estatuko berezia, subjektu pasiboak egiten duen aukera aldaketa.

Aukeraren aldaketak, Instrukzioko 10., 11. eta 12. erregeletan jasoriko ahalmenei dagokienez, hurrengo zergalditik aurrera izango du eragina.

2. Aurreko atalean xedatutakoa dena den, honakook ez dira aldaketatzat hartuko eta dagokion alta edo bajako aitorpena aurkeztu beharra sortuko dute:

- a) Subjektu pasiboaren helbide fiskalaren aldaketa, helbide hori Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpora eramaten denean, estatuko kuota berezi kasuetan, baja aitorpena egin beharko delarik.

Helbide fiskalaren aldaketa kanpoko udalerri batetik Gipuzkoako Lurralde Historikora egiten bada, alta aitorpena aurkeztu beharko da.

- b) Ihardueraren helbide aldaketak, udalerri ezberdinen artean nahiz udalerri berean eginak izan, udal kuota minimoa esleiturik duten iharuderen kasuetarako.
- c) Ibilgailu bat beste batengatik aldatzea, bidaiarien lurretiko garraio eta salgaien errepidezko garraio iharduerei dagokienez.
- d) Ustiapenerako baimen biraren barruan zorte eta foru makinak aldatzea, euren jabeari dagokionez.
- e) Negozioa eskualdatu edo ihardueraren lokala aldatzean ihardueraren titularitatea aldatzea.

3.⁵ Aitorpena egitea zegokion zergalditik ez, baina hurrengotik aurrera izango dute eragin aldaketek.

⁴ Apartatu hau 2013ko abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren amaierako xedapen laugarrenak aldatu du. Foru Dekretuak, zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua onartzen du. Aldaketa GAOn argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2013-12-19ko GAO).

⁵ Apartatu hau 2013ko abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren amaierako xedapen laugarrenak aldatu du. Foru Dekretuak, zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua onartzen du. Aldaketa GAOn argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2013-12-19ko GAO).

Artikulu honetako 1. apartatuko c) eta d) letretan aipatzen diren kasuetan, baldin eta subjektu pasiboek oharrek edo kuota motak aurreikusitako ahalmenak aldaketa egiten den momentutik bertatik aplikagarri izatea nahi badute, behar diren alta eta baja aitorpenak aurkeztu beharko dituzte, kasu horietan ez direlarik aldaketatzat joko.

7. artikulua. Aitorpenak aurkezteko epe eta lekuak.

1. Alta aitorpenak Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrean aurkeztuko dira, iharduerari hasiera eman aurreko hamar egunen barruan. Aldundiak gero, horren berri emango dio hilerio iharduera burutzen den lekuko Udalari, zerga eraentzen duen Instrukzioko 5. erregelak xedatzen duenaren arabera ezarritakoari.

2. Aldaketa eta bajako aitorpenak, ihardueraren aldaketa edo uztea gertatu zenetik hasita hilabeteko epean aurkeztu beharko dira. Aitorpenok Gipuzkoako Foru Aldundian edo dagozkion Udaletan aurkeztu ahal izango dira.

Kasu bietan, Foru Aldundiak eta Udal bakoitzak aurkeztu diren alta edo aldaketa aitorpenen berri emango diote elkarri hilerio, behar diren ondoretarako.

3. Ihardueraren uzte edo aldaketako bezala aitorturiko data baja aitorpenaren aurkezpenekoaren aurreko urte bati dagokiona bada, eta artikulu honetan adierazitako epeaz kanpo aukezten bada, aitortzaileak frogatu egin beharko du uzte edo aldaketa data hori.

8. artikulua. Obligazioak ez betetzea.

Aurreko artikuluetan aipaturiko aitorpenak ez aurkeztu izana edo epez kanpo aurkeztea zerga-arauen urratze arintzat joko da.

9. artikulua. Ofiziozko alta, aldaketa eta bajak.

1. Zerga administrazioak subjektu pasiboak aitortu ez eta zergapekoak diren ihardueraren baten hasiera, aldaketa edo uztearen berri duenean, interesatuari jakinaraziko dio eta hamabost eguneko epea emango bere eskubidearen alde egoki eritzitako alegazioak aurkez ditzan. Epe hori amaitu eta aurkezturiko alegazioak ikusi ondoren, kasuan-kasuan sartu, aldatu edo kanpo utziko du administrazioak ofizioz, subjektu pasiboaren jakineraziz, eta hasiera, aldaketa edo uztea gertatu zen egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

2. Aurreko lerroaldian adierazitako, organo eskumendunek ikerketako iharduketan eta bidezko diren zehapenak jartzearen kaltetan gabe izango da.

3. Ekonomi ihardueren gaineko Zergarengatiko zordunketa dela eta subjektu pasibo bat kobraezin jotzeak, kuota kobraezinari dagokion ihardueraren gaineko Zergaren matrikulan ofizioz baja ematea ekarriko du automatikoki.

3. Sekzioa: Ihardueren kalifikazioa eta kuoten likidazioa.

10. artikulua. Prozedura eta organo eskumendunak.

1. Gipuzkoako Foru Aldundiak iharduera kalifikatu eta kuotak ezarriko ditu.

2. Subjektu pasiboak alta aurkeztu ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiko organo eskumendunak dagokion likidazioa luzatuko du eta hiruhileko bakoitzaren

ondorengo hilabetean udaleko gutxieneko kuotaz kargaturiko ihardueri buruzkoak Udalei jakineraziko dizkie.

3. Ofizioz sartutakoen kasuan, Gipuzkoako Foru Aldundiko organo eskumendunak likidazioa egindo du, probintziako kuota edo estatuko berezia bada.

Udaleko gutxieneko kuotaz kargaturiko ihardueren kasuan, ofizioz sartutakoan zerrenda igorriko die Udalei hiruhileko bakoitzaren hurrengo hilabetean, bidezko diren likidazioak egin ditzaten.

Udalek ere, eginiko likidazioen kopiak igorriko dizkiote Gipuzkoako Foru Aldundiko organo eskumendunari, arrazoiartzea egiteko.

4. Matrikulan jasoriko datuak sartu, atera edo aldatzeari buruzko ekintzak subjektu pasiboari zuzenean jakinerazi beharko zaizkio. Hala ere, egintza horiek subjektu pasiboak berak aurkezturiko alta, baja edo aldaketa aitoren onorio direnean, egintzok aurkezpenaren momentuan jakinerazitzat joko dira.

Likidazioa, egin duen administrazio organoak jakineraziko dio subjektu pasiboari, Zergikiko Foru Arau Orokorreko 123 artikuluko baldintzekin.

Kasuan-kasuan bidezko izan daitezzen likidazio-egintzak zentsuko egintzekin batera jakinerazi ahal izango ditu Gipuzkoako Foru Aldundiko organo eskumendunak, tributuen likidazio egiteko eskuduntzak esleiturik dituenen.

5. Edozein kasutan ere, aitoren aurkezleak subjektu pasiboak ez direnean, horien ordezkariak hartuko dira eta egiten zaizkien jakinerazpenek subjektu pasiboak euren egin izan balitzaizkie adinako balioa eta ondorio berak izango dituzte.

4. Sekzioa: Salbuespenak eta Hobariak

11. artikulua. Eskaera.

1. Salbuespen edo hobarien emakidarako eskaerak Udaletan edo Gipuzkoako Foru Diputazioan aurkeztuko dira, eskaera hori alta aitoren bertan egiten denean, ezinbestean Diputazioan aurkeztu beharko delarik.

2. Zergaren matrikulan alta hartu edo aldaketa egitearekin batera egingo da eskaera, edo Ogasun Lokalak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Araueko 9. artikulua aipatzen duen akordioa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik bi hilabeteko epean, eta emakida eskatu deneko zergalditik aurrera izango ditu ondorioak.

3. Gipuzkoako Foru Aldundian eskaera aurkeztu ondoren, eman edo ukatzeko eskumenduna den Udalera igorriko da, Zergari buruzko Foru Arauaren 14.5 artikuluan aurrikusitako aurretiazko txosten teknikoarekin batera.

Bestela, salbuespenak emateko eskuduntza duen Udalak Gipuzkoako Foru Aldundira igorriko du subjektu pasiboak aurkezturiko eskaera, horrek aurreko lehenaldian aipatutako aginduzko txostena burutu eta bidal diezaion.

Azkenik, Udalak hartutako erabakia Gipuzkoako Foru Aldundiko organo eskurnendunari jakineraziko zaio, subjektu pasiboari egingo zaion jakinerazpenaz gain.

4. Artikulu honek xedatzen duena, ezargarri diren onura fiskalak onartzen dituzten Ordenantza Fiskalek ezar dezatenaren kaltetan gabe izango da.

5. sekzioa. Zerga zorraren ordainketa⁶.

12. artikulua. Zerga zorraren ordainketa.

1. Zergaren kuotak ordainagiri bidez bilduko dira. Izaera orokorrean, zerga zorra borondatez ordaintzeko epea urriaren 1etik azaroaren 10era bitartekoa izango da eta, azken egun hori jaieguna bada, hurrengo lehen lanegunean amaituko da, beti ere foru dekretu honen 10. artikulua alta berrien ondorioz likidatzen diren kuoten inguruan xedatutakoa eragotzi gabe.

Bilketa horren ondorioetarako, Gipuzkoako Zergabilketa Erregelamenduak aldizkako mugaeguna duten eta jakinarazpen kolektibokoak diren zorren bilketari buruz ezarritakoa aplikatuko da.

2. Udalek esku izango dute aurreko apartatuan izaera orokorrean ezarri den borondatez ordaintzeko epea beren ordenantza fiskaletan aldatzeko. Epe hori ezin izango da hasi Erroldaren jendaurreko erakustaldia amaitu baino lehen, eta bere egun kopurua ez da inoiz izaera orokorrean adierazitako epearena baino txikiagoa.

3. Era berean, udalek beren ordenantza fiskaletan erabaki ahal izango dute zerga zorraren ordainketa inolako interes eta errekariguri gabe zatikatu ahal izatea.

4. Aurreko apartatueta xedatutakoa xedatuta ere, gertatzen bada zergaren kudeaketa Foru Aldundiari dagokiola kuota probintzial eta bereziak direlako edo udalek, dagokion Hitzarmenaren bidez, Foru Aldundiaren esku utzi dutelako udal kuoten kudeaketa, Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak bakarrik aldatu ahal izango du borondatez ordaintzeko epe orokorra, beti ere aurreko 2. apartatuan ezarritako muga berberekin.

Orobat, kasu horietan Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak bakarrik baimendu ahal izango du zorra zatika ordaintzea, aurreko 3. apartatuan aipatu dena.

6. Sekzioa: Errekurtso eta erreklamazioak

13. artikulua. Zentsu eta likidazio egintzen aurkako errekurtsoak.

1. Erabakia hartzeko organo eskumenduna zein den kontuan izan gabe, interesatuek Gipuzkoako Foru Diputazioan edo bakoitzak bere Udalean aurkeztu

⁶ 5. sekzio hau abenduaren 27ko 98/2000 Foru Dekretuaren 2. artikulua aldatzen du. Dekretu honek, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga eta Ekonomi Jardueren gaineko Zerga ordaintzeko epe berriak finkatzen ditu borondatezko epealdian egiten den zergabilketari dagokionez. 2001eko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean. Alabaina, borondatez ordaintzeko epeak udalen nahiz Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuaren aldetik aldatzeko ahalmenak 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera bakarrik izango du eragina

ahal izango dituzte bidezko diren errekurso nahiz errekamazioak, matrikulan jaso arazten diren datuetako edozein sartu, atera edo aldatzearen aurka zein zergaren kudeaketarako egintzen aurka ere, eta baita, hala badagokio, okerreko dirusarreraren itzulketa eskaerak ere.

2. Errekurtsoa jasotzen duen organoak, erabakirik hartzea bere eskuduntzakoa ez dela eirtziz gero, ebazpena emateko ezkumendun usten duen organoari igorri dio.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Udal bakoitzak, hartutako erabakien berri emango diote elkarri, errekurtsoa ebaztea erabaki ondoren eta subjektu pasiboari jakineraztearen kaltetan gabe.

Jendaurreko erakustaldian matrikularen aurkako berraztertze errekurtsoak aurkezten badira eta horiek udal kuotei buruzko egintza zentsalak egin beharra ekarri badute, egintza horiek aipagai duten ekitaldiko abuztuaren 10a baino lehen jakinarazi beharko zaizkio dagokion udalari.⁷

7. Sekzioa: Ikuskaritza.

14. artikulua. Ikuskapen jarduketaren berri ematea.⁸

1. Ikuskapen jarduketak hasi ondorengo hamabost egunen barruan, udalak jarduketak hasi izanaren berri eman behar dio Gipuzkoako Foru Aldundiko organo eskudunari.

2. Zerga erregularizazioa proposatzeko beharrezko diren datu eta frogak behin eskuraturik, eta betiere interesatuari entzun aurretik, espediente osoa esandako organoari bidali behar zaio jarduera kalifikatu eta kuotak ezar ditzan.

15 eguneko epean, jarduketak jasotzen direnetik aurrera, udalari jardueren kalifikazioa eta ezarritako kuotak biltzen dituen espediente itzuli behar zaio, honek, interesatuari entzun ondoren, zerga zorraren likidazioa aktan jaso eta likidazioa jakinarazi dezan.

Entzute tramite horretan interesatuak alegazioak aurkeztu baditu jarduerari emandako kalifikazioaren edo ezarritako kuoten aurka, Gipuzkoako Foru Aldundiko organo eskudunari helaraziko zaizkio haien inguruan ebatzi dezan.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehena.

⁷ 2 apartatuko hirugarren paragrafo hau maiatzaren 25eko 48/2004 FORU DEKRETUaren Artikulu Bakarrak aldatu du. Foru Dekretu honek jarduera ekonomikoen gaineko zergaren kudeaketarekin lotutako zenbait alderdi arautzen dituen azaroaren 19ko 80/1991 Foru Dekretua aldatzen du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta ondorioak izango ditu, baita ere, 2004ko zergaldiko matrikularen onarpenari eta erakustaldiari dagokienez. (2004-06-07ko GAO).

⁸ Artikulu hau abenduaren 14ko 35/2010 FORU DEKRETUaren artikulu bakarrak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren kudeaketarekin lotutako zenbait alderdi arautzen dituen azaroaren 19ko 80/1991 Foru Dekretua ikuskapen jarduketei dagokienez aldatzen du. Aldaketa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean (2010/12/24ko GAO), eta aplikaziozkoa izango da bai hura indarrean sartu ondoren hasten diren ikuskapen prozeduretan eta bai lehendik hasitakoak izanik une horretan tramitatzen ari direnetan.

1. 1991ko abenduaren 31n zergak, kargaturiko iharduerak burutzen dituzten eta hori indarrean sartzeko denetik aurrera ere horretan jarraituko duten subjektu pasiboak beharturik daude dagozkien alta aitortpenak zentsuan aurkezteko.

Alta aitortpenak aurkezteko epea 1992ko urtarrilaren 1etik martxoaren 2la bitarteko izango da, aurreko legeraldian aipaturiko subjektu pasiboentzat.

Kasu honetan, 1992ko urtarrilaren 1a hartuko da ihardueraren hasierako eguntzat, eta Foru Dekretu honetako 7.2. artikuluan xedatutakoa ez da aplikagarri izango.

2. Uztailaren 5eko 13/1989 Foru Arauaren Xedapen Irangankorretako lehenaren 2. zenbakian aurrikusitako ondorioetarako, Ekonomi Ihardueren gaineko Zerga ezartzen hastean Merkataritza eta Industri Ihardueren Lizentzia Fiskalean edo Arte eta Lanbide Ihardueren Lizentzia Fiskalean onura fiskalen bat gozatzen dutenek, erasota utzi beharko dute xedetasun hori alta aitortpenetan.

Bigarren.

Udalekoa, probintziakoa zein estatuko berezia izan, kuota mota bat baino gehiago esleiturik duten iharduerentzat ezarri beharreko koefiziente eta indizeak onartzen dituzten udal ordenantza fiskalak argitaratu aurretik aurkeztutako alta aitortpenek behin-behineko izaera dute.

Subjektu pasiboak bere aukera aldatu egin ahal izango du aipatu ordenantzak argitaratu eta hurrengo hilabetearen zehar, aldaketa aitortpena aurkeztuz. Epe hori igaro ondoren, irmotzat joko da egindako aukera eta horren gainean egiten den edozein aldaketa Foru Dekretu honen 6. artikuluan adierazitako erregimen orokorrari lotuko zaio.

Aukeratzeko epea igaro ondoren ateratzen den behin-behineko likidazioaren berri eman du Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Hirugarrena.

Iharduera 1992ko urtarilean zehar hasten duten subjektu pasiboek epe horretan bertan aurkeztu beharko dute alta aitortpena, eta Foru Dekretu honetako 7.1. artikuluan aurrikusitako erregimen orokorra ez zaie aplikagarri izango.

Laugarrena.

Foru Dekretu honetako 7. artikulua xedatuaren kaltetan gabe, 1992ko urtarrilaren 1etik maiatzaren 31ra bitartean aurkezturiko gutxieneko udal kuotegatiko alta, baja edo aldaketa aitortpenen zerrenda bidaliko die Gipuzkoako Foru Aldundiak Udalei, urte bereko ekainan zehar.

Bosgarrena.

Ekonomi Ihardueren gaineko zergaren lehen matrikula, 1993ko ekitaldiari dagokion zergaren ordainerazpenerako egingo da.

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA

Foru Dekretu honetan udalei emaniko eskuduntzak, probintziako kuota edo estatuko kuota bereziaren menpeko iharduerekiko Foru Aldundiari dagokion eskuduntzaren kaltetan gabe izango dira.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

1. Foru Dekretu honetan erabakitako guztiaren garapen eta ezarpenerako aurauak emateko ahalmena izango du Ogasun eta Finantzetako Foru Diputatuak.
2. Foru Dekretu hau Gipuzkoako **ALDIZKARI OFIZIALEAN** argitaratu eta hurrengo egunean jarriko indarrean.

ALDAKETAK

Honako zerrendan foru arauak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- *Abenduaren 27ko 98/2000 FORU DEKRETUA, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga eta Ekonomi Jardueren gaineko Zerga ordaintzeko epe berriak finkatzen dituen borondatezko epealdian egiten den zergabilketari dagokionez. (2000-12-29ko GAO)*
 - 2. artikulua 5. sekzioa aldatzen du.
- *Apirilaren 29ko 18/2003 FORU DEKRETUA, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren kudeaketarekin lotutako zenbait alderdi arautzeko onartutako azaroaren 19ko 80/1991 Foru Dekretua aldatzen duena. (2003-05-12ko GAO).*
 - Bere artikulua bakarrik 2. artikuluko 1 apartatua aldatu du.
- *Maiatzaren 25eko 48/2004 FORU DEKRETUA, azaroaren 19ko 80/1991 Foru Dekretua, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren kudeaketarekin lotutako zenbait alderdi arautzen dituen, aldatzekoa. (2004-06-07ko GAO).*
 - Bere artikulua bakarrik 2. artikuluen 2 apartatua, 2. artikuluen 3 apartatuko lehen paragrafoa eta 13. artikuluen 2 apartatuko hirugarren paragrafoa aldatu ditu.
- *Azaroaren 23ko 91/2004 FORU DEKRETUA, azaroaren 19ko 80/1991 Foru Dekretua, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren kudeaketarekin lotutako zenbait alderdi arautzekoa, aldatzen duena (2004-12-02ko GAO).*
 - Bere artikulua bakarrik 4. artikuluen 1 eta 2 apartatuak aldatu ditu.
- *Ekainaren 23ko 21/2009 FORU DEKRETUA, otsailaren 20ko 6/1990 Foru Dekretua Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kudeaketaren zenbait alderdi garatzen dituen eta azaroaren 19ko 80/1991 Foru Dekretua, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren kudeaketarekin lotutako zenbait Alderdi arautzen dituen, aldatzekoa (2009/07/02ko GAO).*
 - Bere 2. artikulua 2. artikulua aldatzen du.
- *35/2010 FORU DEKRETUA, abenduaren 14koa, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren kudeaketarekin lotutako zenbait alderdi arautzen dituen*

azaroaren 19ko 80/1991 Foru Dekretua ikuskapen jarduketei dagokienez aldatzekoa (2010/12/24ko GAO).

- Bere artikulua bakarrak 14. artikulua aldatzen du.

- *35/2010 FORU DEKRETUA, abenduaren 14koa, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren kudeaketarekin lotutako zenbait alderdi arautzen dituen azaroaren 19ko 80/1991 Foru Dekretua ikuskapen jarduketei dagokienez aldatzekoa (2010/12/24ko GAO).*

- Bere artikulua bakarrak 14. artikulua aldatzen du.

- *47/2013 FORU DEKRETUA, abenduaren 17koa, zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua onartzen duena (2013-12-19ko GAO).*

- Amaierako xedapen laugarrenak 6. artikuluen 1. eta 3. apartatuak aldatzen ditu.